

Idealismorik eta nagusikeriarik gabe

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Kubako Villa Clara probintziatik ari natzaizu idazten, irakurle. Astearte arratsaldean heldu ginen bertara Euskal Herriko hamar lagun, Sortuk ICAP Herrien Adiskidetasunerako Kubako Institutuarekin elkarlanean antolatutako eskala politikoan. Santiagon egon gara lau egunez, eta astelehenean hartuko dugu Habanarako bidea.

Santa Ifigeniako hilerria bisitatu, Iraultzaren Defentsarako Batzordeetako kideekin bildu eta ANAP Nekazari Txi-

kien Elkarte Nazionalaren filosofia eza-gutu ditugu egunotan, besteak beste. Datozen egunetan, berriz, izango dugu aukera Escambray inguruko mendiko komunitate bat, Habana Zaharreko plazak edota CENESEX Sexu Heziketarako Zentro Nazionala bisitatzeko. Ikusi eta entzuten ari garenari esker, asko ari gara ikasten ere.

Urrundik idealizatutako herrietara ez dugula nagusitasunez sartu behar ohar-tu gara. Latinoamerikako herriak kolo-nia izan zirela ezin dela ahaztu. Sobietar

Batasuna ezinbestekoa izan zela Kubako sozialismo antiinperialistak aurrera egi-teko. Fideletik Raulerako lekuko aldake-tak egiturazko ekonomia arazoei irten-bidea topatzeko erabakiak ekarri zituela. Eta Kuban sozialismo jasanga-rria eta oparoa bultzatu nahi dutela.

Duela 30 urte hasitako aldaketaz, era askotako ikuspegiak daude Kubako iraultzaren aldeko sektoreen barnean. Baina badirudi kubazaletasuna izango dela proiektu burujabeari eusteko bi-dea. •

Entzierroak

Joxean Agirre

Telebistaren aurrean entzierroko zezen eta kabestroei (idiak) begira, Michel Tournierren artikul-bitxi bat etortzen zitzaidan gogora, “Célébrations” liburuan bildua, zeinetan lau hankako abereen ibilerak aztertzen zituen, esanez etxeko abereak diagonalean edo trabeska mugituz ibiltzen direla eta basatiak lauhazkan. Teoria horren arabera entzierroko kabestroek ibilera diagonal beharko zuketenezen lauhazkakoa, baina ez naiz ondorio garbi batera iritsi.

Bereizketa hau azkar ulertzeko: ume bat lau hankan ibiltzen hasten denean diagonalean mugitzen da, alegia, ezker eskua eta eskuin hanka aurreratzen ditu lehenik eta eskuin eskua eta ezker hanka gero. Gure behiek eta oro har etxeko abereek ere, hala nola katuek eta zaku-

rrek, ibilera horixe dute, diagonalekoa alegia. Aldiz, abere basatiek, azeriek, orkatzek eta berdin tigreek edo bisonteekek lauhazkan ibiltzeko joera dute. Horixeda, esate baterako, otsoa eta artzain zakur alemana bereizteko modua ere: otsoa lauhazkan dabil eta zakurra diagonalean. Zaldiaren kasu berezia da: pausoa eta trosta diagonalean egiten ditu, baina azkar doanean lauhazkara igarotzen da. Zaldi basatiak beti doaz lauhazkan. Badirudi ibilera diagonalak ibiltoki lauak eskatzen dituela. Eremu zailetan, haitzen artean esaterako, lauhazka seguruagoa dela.

Esan dudana bezala, Tournierren zera hori irakurri nuenetik ezin izaten dut entzierrorik ikusi kabestroen eta zezenen ibilerak alderatzen denbora galdu gabe. Eta gaitz erdi begia abereen ibile-

rei bakarrik jarriko banie, hasita bainago gizakien ibilerak, neureak barne, teoria horren arabera aztertzen. Mendiko makilekin noanean badakit diagonal garbian mugitzen naizena, neure estilo zabarra gorabehera. Kaletik barrena ere mendiko pausajearekin ibili ohi naiz, jauzi txikiak eginez bezala, eta norbaitek pausaje hori guztiz basatia dela us-teko badu ere, zibilizatua da ehuneko ehunean, Tournieren arabera. «Pasarela-ko modeloen ibilera?», galdetuko du norbaitek eta ez naiz oraindik ondorio garbi batera iritsi, ibilera horiek aztertzen ordu asko eman baditut ere.

Istorio honetan amorrua ematen didana zera da: Paris erdian jaio zen idazle bat izatea niri behi eta zezenen ibilerari buruz lezioak eman nahi dizkidana, neu behien artean jaioa naizenean. •